

Martxoaren 21eko MAHAI PAREKIDEA

ORDEZKOEN ARAUDIA

Parekidean LABek aurkeztutako ia proposamen guztiak onartu dira. Azpimarratzekoak dira:

- 1.- Amatasun lizentziarekin dauden ordezkoei bakantea eskainiko zaie eta, beraz, puntuak jasoko dituzte. Bakante hartuko dute, eta lizentzia amaitu bitartean ordezko batek beteko du bere plaza.
- 2.- Ikasturtean zehar sortzen diren bakante berriak irailean eskainiko dira esleipenetan, eta bitartean behin behinekoz beteko dira.

ZERRENDA BAKARREKO DEIALDIA ETA BAREMAZIOA

Partzuergoak zerrenda bakarrean bilduko ditu hezitzaile guztiak, bai lanean ari direnak, baita berriak ere. Horretarako apirilaren 3 eta 12 bitartean berbaremazioari ekingo dio, hau da, puntuazioak osatzeari.

Jada lanean ari zaretenok, bitzita laboralaren agiria aurkeztu beharko duzue. Gaurkotuta egon beharko du, eta beraz, Gizarte Segurantzaren bulegotan eskatu beharko duzue. Gure ustez hezitzaileen zerrendaren kudeaketa enpresak berak egin behar luke, eta horretarako pertsonal gehiago kontratatu, eta ez, egiteko asmoa duten moduan, kanpoko enpresa bati eman lan hori.

HEZITZAILE BAKARREKO ESKOLA TXIKIAK

Hainbat eskolatan enpresak hezitzaileak behartu ditu egunean 7 ordu baino gehiago egitera. Orain, hurbil dauden bi eskoletarako beste hezitzaile bat kontratatuko da lanaldi erdiz. Bigarren honek eskola bakoitzean bi egunetan jardungo du, eta ordutegia bi langileen artean adostu beharko dute.

HAURRESKOLA "HISTORIKOETAKO" HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

LABek eskoletako egoera aztertu du hezitzaileekin batera. Euskalduntzearen ikuspegitik beharra ikusten dugu perfilik gabeko "historikoak" euskalduntzeko eta euskaldunen hizkuntza kalitatea hobetzeko. Oraingoz, erabakita dagoen kontu bakarra da perfilak lortzeko epeak OPE delakoa arte luzatzea. Gure eskakizuna da horrez gain, planak jasotzea langileen liberazioak, IRALEn kupoak gordetzea, laguntza ekonomikoak...

2005eko ATZERAPENAK

Pasa den hilabetean, 2005eko atzerapenak kobratu genituen. Baina batzuek amatasun lizentziarekin edo bajaran egon direlako, ez dituzte atzerapenak osorik kobratu.

Bajaren edo amatasun lizentziarekin egon bazara, jarri harremanetan LABekin eta derrigor egin behar duzuen eskaria bideratuko dugu.

ERRELEBO KONTRATUA

Partzuergoak errelebo kontratuaren aukera onartu du. Maiatzaren 1etik aurrera hasiko da martxan jartzen.

KOORDINATZAILEAK

Hitzarmena sinatzerakoan, garbi geratu zen taxuzko koordinaziorako hezitzaileek denbora tarte eta baldintza egokiak behar dituztela. LABek ez du uste baldintza horiek betetzen direnik. Partzuergoa kasuz kasu ari omen da aztertzen zentroan dauden koordinaziorako aukerak, ordezkorik behar ote den... LAB afiliazioarekin izandako bileretan jasotako iritzirik aztertu eta proposamena lantzen ari da. Parekidera eramango dugu neurri serioagoak har daitezten.

www.labsindikatua.org

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraidean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatua.org	Rekalde Zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatua.org	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 472 709 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatua.org	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatua.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatua.org